


# GZ

GIZARTERATUZ  
monografikoak



**Berrikuntzak  
mendekotasuna  
duten adinekoen  
etxeko arretaren  
alorrean**



# Berrikuntzak mendekotasuna duten adinekoen etxeko arretaren alorrean

**E**guía Careaga Fundazioaren SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak, 2020an eta 2021ean, hainbat erakunderekin jardun du lanean –batez ere, Gasteizko Udalarekin eta Bartzelonako Diputazioarekin–, etxeko laguntza-zerbitzua (ELZ) antolatzeari eta hornitzeari dagokionez nazioartean ageri diren joerak, berrikuntzak eta jardunbide egokien adibideak identifikatzeko. Egindako azterketak agerian uzten du beharrezkoa dela etxeko laguntza-zerbitzua malgutzea, dibertsifikatzea, aberastea eta, aldi berean, espezializatzea. Malgutzea, pertsona bakoitzaren beharrizan espezifikoetara arinago eta egokiago iristeko aukera bermatzeko. Dibertsifikatzea, pertsona bakoitzak eska ditzakeen laguntzak eta zerbitzuak eskaintzeko –eguneroko bizitzako jardueretarako edo etxeko lanak egiteko zaintzetatik harago–. Aberastea, zerbitzuari balio erantsia emateko, kontuan izanik eremu pribatuak (formalak edo informalak) edo kostu txikiagoko beste baliabide batzuek ezin diotela eman halakorik. Eta, azkenik, espezializatzea, halako zerbitzu publiko bat behar duten eta balia dezaketen pertsonak hartu behar baititu ardatz zerbitzuak.

Hautemandako berrikuntzen eta jardunbide egokien artean, hauek nabarmendu behar dira:

Alde batetik, gero eta interes handiagoa nabari da erabiltzaileen aukera askearekiko eta hornitzaileen arteko lehiarekiko, zerbitzua eskuratzeko prestazio ekonomikoak baliatzearen bidez. Frantzia edo Alemanian, konparazio baterako, prestazio ekonomiko baten bidez izaten da etxeko laguntza-zerbitzu nagusietarako sarbidea, eta erabiltzaileak edo haren familiak aukeratzen eta kontratatzen du zerbitzua, bizi den tokiko hornitzaileen eskaintzatik abiatuta. Beste herrialde batzuek ere –Holandak edo Erresuma Batuak,

kasu– horrelako prestazioak garatzeko bidean egin dute aurrera, eta Eskandinaviako herrialdeek ere aukera askearen logika txertatu dute beren zerbitzuen diseinuan (izan zerbitzu horiek egoitzetakoak, izan etxekoak).

Aukera askearen eta prestazio ekonomikoen bidezko etxeko laguntza-zerbitzurako sarbidearen protagonismo handiago horren jatorria honako hau da: alde batetik, erabiltzaileei hautaketarako, autodeterminaziorako eta kontrolerako gaitasun handiagoa eskaini beharra, eta, bestetik, zerbitzuarekin lotutako gastuari eusteko nahia eta etxeko laguntza-zerbitzuaren funtzionamenduari merkataritza-logikak aplikatzea (abiapuntu gisa harturik hornitzaile bat baino gehiagoren arteko lehiak hobetu egingo lukeela zerbitzua). Esperientzia horien helburua da, batez ere herrialde jakin batzuetan, zerbitzuari arintasun handiagoa ematea, eta, prestazio horiek malgutasunez erabiliz, zaintza-pakete pertsonalizatuagoak konfiguratzeko, ez hain zurrunik eta erabiltzaileen beharretara gehiago egokitzen direnak.

Aurrekoarekin estu lotuta, beste joera bat ere identifikatu da; alegia, erakunde pribatuek (irabazi-asmoz edo irabazi-asmorik gabe) protagonismo handiagoa dutela zerbitzuak hornitzeko prozesuan, aukera askearen printzipioari emandako garrantziarekin bat etorritik. Nahiz eta erakunde hornitzaileen titulartasunari buruzko egoera oso desberdina izan aztertu ditugun herrialdeetan, gero eta zeregin handiagoa dute erakunde pribatuek, eta, horien artean, merkataritza-erakundeek. Zalantzarik gabe, aldaketa horren arrazoietakoa bat da erakunde pribatuen kostu txikiagoa eta malgutasun handiagoa, baina baita zerbitzuetarako sarbidea malgutzeko premia ere, adierazi berri den pertsonalizazioaren logikari jarraikiz.

Etxeko laguntza-zerbitzuari dagokionez garatzen ari den beste joeretako bat da zerbitzuak premia handienak dituzten pertsonak hartzen dituela ardatz, eta gero eta gehiago bereizten direla etxeko lanak, batetik, eta, bestetik, zainketak, bai zerbitzuaren finantzaketari dagokionez, bai zerbitzua eskuratzeko formulei dagokienez.

Aldi berean, zerbitzuaren lurralde- eta komunitate-dimentsioa indartzera bideratutako ereduak garatu dira azken urteotan, bai eta profesionalek etxeko laguntza-zerbitzuko prestazioaren autokudeaketa sustatzera bideratutakoak ere, pertsona helburu duen arretaren ikuspegitik. Hori horrela den heinean, etxeko laguntza-zerbitzuetan nagusitu egin dira azken urteotan malgutasuna, territorializazioa eta autokudeaketa ageri dituzten proiektu

edo programak, eta, hala, zerbitzuan hurbiltasun handiagoa bermatzen duten formulak garatu dituzte.

Hori horrela, zorrotz ezarritako zereginak oinarri dituzten sistema tradizional tayloristen aurrean, etxeko esku-hartze sozialeko proposamenak ari dira sortzen. Proposamen horietan, arretaren moldagarritasuna eta interaktibitatea sustatzen dira, eta, horretarako, kontuan hartzen dira erabiltzaileen bizitzako egoera-aldaketak eta une bakoitzean (denbora errealean) dituzten beharrak eta eskariak, arriskuak eta aukerak. Eredu horretarako, halere, aldakortasun handia izan behar dute profesional-taldeek, gertutasun geografikoa eta langileen erabaki-ahalduntzea oinarri harturik. Eta hori guztia, datuak bizkor eta adimenez prozesatzean funtsaturik. Britainia Handiko ongizate-taldeak, Holandako *Buurtzorg* eredua edo Bartzelonako superuharte sozialak dira tankera horretako ikuspegi adibide.

Identifikatutako beste joeretako batek etxeko laguntza-zerbitzuaren dibertsifikazioari dagokio, etxean zahartzea erraztera bideratutako zerbitzuen pakete zabalago baten zati gisa. Esparru horretan, zaintza-eredu integratuak garatzeko erraztasunak ematen ari dira, zeinen helburua baita hobeto koordinatzea pertsonen eskura dauden baliabideak eta zerbitzuak. Eredu horiek, oro har, kasua kudeatzeko formula trinkoak garatzeko aukeran oinarritzen dira; izan ere, aukera ematen dute banakako arreta-paketeak modu pertsonalatuagoan koordinatzeko eta artikulatzeko, bai eta hainbat zerbitzu eta baliabide bateragarri egiteko ere. Gipuzkoan garatutako Etxean Bizi programa da ikuspegi horren adibide ona. Era berean, indartzen ari da zerbitzuen arteko bateragarritasuna; Alemanian, konparazio batera, zerbitzuen onuradunak zerbitzu batetik bestera errazago ibiltzeko formulak diseinatu dituzte, modu malguagoan konbina ditzaten eta, azken buruan, unean-unean dituzten premien arabera eskura ditzaten zerbitzu eta bitarteko horiek.

Azkenik, etxeko laguntza-zerbitzuaren edukiari dagokionez, nabarmendu behar da gero eta interes handiagoa pizten dutela etxeko errehabilitazio-programek, adineko herritar guztientzako bisita sistematikoek, etxeko laguntza-zerbitzuen programa ultraintentsiboek (arreta ordu-kopuru oso handi batean ematen dutenak), eta, oro har, etxeko laguntza-zerbitzuen programa osagarriek (etxeko otordu-zerbitzuak, konpainia-zerbitzua eta abar). ●





## DATUAK

### 4 | GIZARTERATUZ MONOGRAFIKOAK


**2019an, etxeko laguntza-zerbitzuak 16.829 pertsona artatu ditu Euskadin, hau da, EAEko mila biztanletik zortzik jaso du etxeko arreta, gutxi gorabehera. Murrizketa-aldi baten ondoren (2009 eta 2014 artean), egonkor samar mantendu da zerbitzu horren erabilera.**

**Zerbitzuaren batez besteko intentsitateari dagokionez, datuek bilakaera irregularragoa ageri dute. Nolanahi ere, oro har behera egin du erabiltzaile bakoitzari astean eskaintzen zaion ordu-kopuruak; gaur egun, lau ordu inguru dira astean.**


**Datuak lurraldearen arabera aztertuz gero, alde nabarmenak ageri dira etxeko arretaren eredian, eta Araban ikusten dugu zerbitzu horren irismenik handiena. Gipuzkoan, berriz, intentsitate handiagoa du. Bizkaia ageri ditu datarik apalenak bi adierazleotan.**

**Ezaugarri pertsonalei dagokienez, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistikan argitaratutako azken emaitzen arabera, zerbitzuaren hamar erabiltzailetik bederatzik 65 urte edo gehiago dituzte, hau da, Euskadiko adinekoen % 3k.**

1. grafikoa. Etxeko laguntza-zerbitzuaren irismena Euskadin (urtean zehar izaniko erabiltzaileak, 1.000 biztanleko)




LURRALDEEN ARTEKO ALDERAKETA (2019)




Iturria: Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika.

2. grafikoa. Etxeko laguntza-zerbitzuaren intentsitatea Euskadin (asteko orduak erabiltzaile bakoitzeko)



LURRALDEEN ARTEKO ALDERAKETA (2019)




Iturria: Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika.

**Kontuan izanik adinekoak direla etxeko laguntza-zerbitzuak artaturiko kolektibo nagusia, Imserso da aintzakotzat hartu beharreko beste iturri bat zerbitzu hori aztertzerakoan. Haren azken txostenaren arabera, Euskadi estatuko batezbestekoaren azpitik dago etxeko laguntza-zerbitzuaren estaldurari dagokionez (adinekoen % 3 eta % 5 artatzen dira Euskadin eta estatuan, hurrenez hurren).**

**Alabaina, arretaren intentsitatearen ikuspegitik, Euskadik gaintitu egiten du estatuan adinekoen etxeko arretara bideratzen den hileko batez besteko ordu-kopurua. Nabarmentzekoa da, halaber, estaldurarik handiena duten erkidego batzuek (adibidez, Madrilek eta Errioxak) ageri dituztela intentsitate-zifrarik txikienak.**

3. grafikoa. Adinekoentzako etxeko laguntza-zerbitzuaren konparazio autonomikoa abenduaren 31n. 2020



Iturria: Imserso. Adinekoen zuzenduriko gizarte-zerbitzuak Espainian.

\*Oharra: Euskadiren kasuan, Imseroren txostenetan ez da Bizkaiko erabiltzaileei buruzko informazioa jasotzen, eta, hortaz, berriz kalkulatu da estaldura, Arabako eta Gipuzkoako 65 urteko eta gehiagoko biztanleen kopurutik abiatuta.



## IXEHETASUNEZ

### 6 | GIZARTERATUZ MONOGRAFIKOAK




#### Etxez etxeko laguntza zerbitzua langileen begiradatik

Franco, P. *et al.*

**El trabajo de ayuda a domicilio en España.** Madrid, Unión General de Trabajadores, 179 or., 2018. Erref.: 538088.

Etxez etxeko laguntza-zerbitzua guztiz profesionala den arren, zaintza edo zaintzarekin zerikusia duten feminizatutako beste esparru batzuetan gertatzen den bezala, lanari ez zaio oraindik duen balioa ematen, ezta profesionaleri ere. Gizartearen irudiaren ondorioz, langileak beraiek ere, askotan, ez dute beren burua gaur egungo gizartearen jasangarritasunerako ezinbesteko aktore gisa ikusten. Emakumeak dira gehientsuenak eta behar besteko eske on soziala ez izatez gain, lana era egokian aurrera eramateko zailtasunak izaten dituzte: formazioarako oztopoak, beharrezko baliabide teknikoaren falta, hitzarmen egokien falta eta zerbitzuen araberako lan jardunaldi gorabeheratsuak, besteak beste. Zaintza balioan jartzea gizartearen eginbeharretako bat den une honetan; gizarte-zerbitzuetan orokorrean eta, bereziki, mendekotasunaren alorrean zaintzak duen garrantzia baliatuz, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eta, zehazki, profesionalen baldintzen eta egunerokotasunaren inguruko ikerketak egitea ezinbestekoa da. Horretan egiten du ekarpen nagusia ikerketa honek, espainiar estatuan langileen prestazioaren eta profesionalen lan baldintzen inguruan egindako hainbat erkidegotako kasu analisien bidezko azterketa honekin.



#### Etxeko arreta eta plataforma digitalak Espainian

**Home Care and Digital Platforms in Spain.**

Bartzelona, Digital Future Society, 2021, 70 or. Erref.: 565040.

Urte gutxiren buruan, plataforma digitalak lan-bitartekaritzako agente nabarmen bilakatu dira hainbat jardueratan, hala nola ibilgailu gidaridunak alokatzeko edo ostatu partikularrak kontratatzeke. Plataforma horiek Espainiako etxeko arretan duten presentzia gero eta handiagoa aztertzen du azterlan horrek. Horretarako, gaiari buruzko literatura berrikustez gainera —oraindik ere oso hasiberria—, elkarrizketak ere egiten ditu arduradunekin eta adituekin. Herrialdean gehien zabalduriko zortzi plataformen funtzionamendua aztertu ondoren, bi kategoriatan sailkatzen ditu: enplegu-agentzia digitalak eta eskatu ahalako plataformak. Enplegu-agentzia digitaletan, pertsonak gainbegiratzen dituzte hautaketa-prozesuak, eta kontratazioak, berriz, epe luzekoak izaten dira. Eskatu ahalako plataformetan, berriz, batez ere algoritmoetan oinarritzen dira langileak esleitzeko prozesuak, eta epe laburrerako kontratazioak izaten dira nagusi. Bietan ere prozedura automatizatuak baliatzen dituzte eta eskala handian jarduten dute, eta gutxieneko azpiegitura duten udalerrietan eskaintzen dituzte zerbitzuak. Enpresa horiek agertu duten arren sektorea profesionalizatzen eta formalizatzen laguntzeko borondatea, dokumentuak zalantzan jartzen du horretarako duten egiazko gaitasuna, eta nabarmentzen du, orobat, zailtasunak dituztela kalitatezko lan-baldintzak eskaintzeko.



#### Bartzelonako metropoli-eremuko etxeko arreta-zerbitzua

Navarro-Varas, L. *et al.*

**Polítiques locals de cura i atenció a l'envelliment. Una mirada metropolitana.** Barcelona, Institut d'Estudis Regionals i Metropolitans de Barcelona, 2020, 31 or. Erref.: 566245.

Txosten horren helburua da Bartzelonako metropoli-eremuan udalaren etxeko arreta-zerbitzuaren hedapena aztertzea, eta, ildo horretan, estaldurari, intentsitateari eta kostuari buruzko datuak eskaintzen ditu. Metropoli-eremuan, oro har, 65 urtetik gorako biztanleen % 15ek eta 70 urtetik gorakoek % 50ek jasotzen dute etxeko zerbitzuaren kasu zehatzean, estaldura hori areagotu egin da azken urteetan. Mendekotasuna aitortuta daukaten pertsonak hilean 17,3 orduz jasotzen dute laguntza batez beste, eta etxeko laguntza-zerbitzu sozialaren onuradunek, berriz, 10,7 orduz. Denbora hori askoz laburragoa da mendekotasun-maila handiagoa duten pertsonak behar dutena baino. Azkenik, zerbitzuaren kostuari dagokionez, udalek gastuaren % 8 inguru estaltzen dute, 14 euro orduko batez beste. Ordainketa partekatuko sistema errentaren arabera modulatzeko den arren, eta kontuan izanik diru-sarrerara handiagoak dituzten pertsonak erakargarriagoak har dezaketela eskaintza pribatua —askotan ezkutuko ekonomia esparruan—, etxeko laguntza-zerbitzu publikoak funtsean errenta txikiagoa duten pertsonari ematen die arreta.



### Madrilgo Erkidegoko etxeko laguntza-zerbitzuko lan-baldintzak



### Etxeko arreta Kantabrian



### Etxeko arretaren eredu alternatiboak

Díaz Gorfinkiel, M. eta Elizalde, B. **Desprofesionalizando el servicio público de asistencia a domicilio en los cuidados de larga duración: análisis de la reconfiguración del sector en la región de Madrid.** *Zerbitzuan*, 60. zk., 2015, 131-141 or. Erref.: 508814.

Taylorizazio gero eta handiagoak, zerbitzua eskaintzen duten erakunde pribatuak ugaritzeak, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko prestazio ekonomikoen agerpenak eta premia larrienak dituzten kasuetan ardazteak aldaketa nabarmena ekarri dute etxeko arreta-zerbitzuaren konfigurazio tradizionalean. Artikulu horrek zerbitzuaren desprofesionalizazioa jorratzen du, testuinguru zehatz gisa Madrilgo Erkidegoa harturik. Egileek azaltzen dutenez, 2008ko krisi ekonomikoaren ondoren murriztu egin zen zerbitzuaren intentsitatea; garrantzia kendu zitzaion mendekotasuna duten pertsonentzako beste zerbitzu batzuekin alderatuta, eta, batez ere, lan-baldintzek nabarmen egin zuten okerrera. Eskaintzen ziren jarduerak gutxiago kontrolatzen zirenez, egileek argudiatzen dute etxeko mantentze-lanek hartu zuten zaintza-lanen tokia, eta horrek aitortza eta izaera profesionala galtzea eragin zuen. Horretaz gainera, adierazten dute murriztu egin zirela zerbitzuan lan egiten duten pertsonak prestatzeko eta birziklitzeko ikastaroak, eta,aldi berean, sektorean esperientziarik gabeko konpainiak bilakatu zirela protagonista zerbitzuok emateko eginkizunean.

**Informe de resultados de la investigación sobre los servicios que facilitan la permanencia en su domicilio y en el entorno comunitario de las personas en situación de fragilidad o dependencia de Cantabria según el Modelo de Atención Integral Centrada en la Persona.** Santander, Cantabriako Gobernua, 177 or., 2019. Erref.: 542117.

Txosten hori Pilares Fundazioak Kantabriako etxeko arreta-zerbitzuei buruz eginiko ikerketaren emaitza da, eta bi helburu ditu: alde batetik, etxeko laguntza-zerbitzuaren, telelaguntza-zerbitzuaren eta etxeko osasun-arretaren egoera diagnostikatzea, eta, bestetik, erakustea esku-hartze mota hori dela eraginkorrena kostuaren aldetik, egoitza-arretarekin alderatuta. Autonomia-erkidego horretan, etxeko arreta-sistema hauek osatzen dute: batetik, osasun-sareak —hark egiten du mendekotasunaren balorazioa— eta, bestetik, etxeko laguntza-zerbitzuaren bi sarek, udal-mailakoak eta autonomia-erkidegokoak. Bi sareek ere balorazio positiboa duten arren, bikoizketak sortzen dira eskaintzan, eta nahasmena sortzen da erabiltzaileen artean. Horretaz gainera, hiru sareek koordinazio eskasa dute, eta horrek badu eraginik prozesuaren kalitatean eta azken arretan. Ondorio gisa, dokumentuak hobekuntzak proposatzen ditu zerbitzua emateari dagokionez, etxeko laguntza-zerbitzua berritzen laguntzeko, hala nola irizpide profesionalak bateratzea, esku-hartzeak eraginkorragoak eta kalitate handiagokoak izan daitezen, eta, horri esker, erabiltzaileen eta haien familien gogobetetze-maila areagotu dadin.

Bennett, L. et al. **New Models of Home Care.** York, The King's Fund, 58 or., 2018. Erref.: 539718.

The King's Fund aditu-taldearen txosten horrek hobekuntzak eta ikuspegi alternatiboak proposatzen ditu, mendekotasuna duten pertsonak etxean zaintzeko eredu arrakastatsuetarantz aurrera egiteko. Dokumentuak programa berritzaileak deskribatzen eta ebaluatzen ditu, bai finkatuta daudenak, bai fase esperimentalean daudenak. Horretarako, abiapuntu gisa hartzen ditu nazioarteko esperientzien bilduma bat eta profesionalekin egindako elkarrizketak. Txostenak sistema digitalizatuen alde egiten du, etxeko arretan lan egiteko modu berriak errazteko bide gisa. Hala ere, gogorarazten du pertsonak direla gakoa, zerbitzu horiek arrakasta izango badute. Ereditu horiek garatzeko, ezinbesteko erronkak dira enplegu-baldintzak hobetzea eta lantaldeei malgutasun eta autonomia handiagoa ematea. Azterlanak dienez, zaintza informalak balio erantsi handia du, eta, horregatik, ezinbestekoa da zaintzaile informalen, baliabide komunitarioen eta talde formalen arteko lotura. Ereditu berriek ikuspegi integrala eta pertsonalizatua hartzen dute, pertsona ardatz hartuta, eta bide horretatik jotzen dute kalitate handiagoko eta herritarren beharretara hobeto egokitutako zerbitzuak eskaintzeko. Ereditu horiek ekarritako kostu-aurrezpena agerian jartzeko zailtasunak dauden arren, dokumentuak behin eta berriz defendatzen du horietan inbertitzea, etxeko arretaren kalitatea hobetzeko duten gaitasunagatik.



## IXEHETASUNEZ


### 8 IGIZARTERATUZ MONOGRAFIKOAK



**Britainia  
Handiko etxeko  
arretarako  
eredu berria**



**Etxeko arreta  
Ingalaterran**



**Aldaketak  
Suediako etxeko  
arretaren  
ereduan**

Hannan, R.  
**Radical Home Care. How Self-management  
Could Save Social Care. A Briefing Paper.**  
RSA, 2019, 25 or. Erref.: 564048.

Erresuma Batuko zenbait erakundek *Radical Home Care* edo etxeko arreta erradikala izeneko eredu batetik abiatuta jarduten dute. Eredu hori zainketen autokudeaketan eta, bereziki, etxeko zainketetan oinarritzen da. Herbehereetako *Burtzoorg* ereduaren oinarri hartuta (<https://www.buurtzorg.com>), ikuspegi horren esparruan garatutako esperientziak honako helburu hauek dituzte: zerbitzua hornitzerakoan malgutasun handiagoa eskaintzea, lan-baldintzak hobetzea, langileen absentismoa eta errotazioa murriztea, laneko gogobetetasuna hobetzea, eta erakundeen balioei atxikitzeo eta haiekin bat egiteko tasa handiagoak eskuratzea. Ildo horretan lan egiten duten erakundeen ikuspegia honetara dago bideraturik: harreman-elementuetara, profesionalen ahalduz handiagoa bilatzera edo prebentzioaren alorrera eginiko ikuspegia hartuz (eta ez denboraren kudeaketan eta zereginen araberako plangintzan soilik oinarritua). Txosten horrek Erresuma Batuan autokudeatutako taldeak baliatzen aitzindari izan diren etxeko zerbitzu batzuk aztertu eta, era berean, horien abantailak adierazten ditu. Eta, amaitzeko, hainbat gomendio egiten ditu eredu hori sustatzeko eta, hari esker, zainketak ez ezik zaintzaileen lan-baldintzak ere hobetzeko.

Bottery, S. (arg.)  
**Home Care in England. Views from  
Commissioners and Providers.** Londres, The  
King's Fund, 44 or., 2018. Erref.: 539156.

Txosten horren helburua da Ingalaterrako etxeko arretaren joera eta erronka nagusiak ulertzea, eta, horretarako, gainbegiraleekin, hornitzaileekin eta gizarte-arretako erakunde nazionalekin eginiko elkarrizketak baliatzen ditu. Aipatzen duten erronka nagusietako bat langileen kontratazioa da, ez baita eginkizun samurra landa-eremu batzuetan. Oro har, elkarrizketek lan-merkatu ezegonkorra jartzen dute agerian, bai eta langileen errotazio handia ere, tarifa baxuak direla eta. Eta horrek zaildu egiten du arretaren jarraitutasuna. Nahiz eta hiriguneetan errazagoa den hornitzaileak ordeztzea, ez dirudi arretaren kalitatea hobea denik. Bestalde, egileek kritikatzan dute tokian tokiko agintariek apenas hartu dutela neurririk etxeko arretaren merkatuari laguntzeko, eta langile gutxi izan dituztenean bakarrik egin dutela halakorik. Azkenik, dokumentuak agerian uzten du Ingalaterran eskaintzen den etxeko arretaren oinarria oraindik ere zereginak denbora-tarte jakin batean egitea dela, langileak gaizki ordainduta daudela eta beste zerbitzu batzuekin koordinazio eskasa dutela. Formula desegokia, inondik ere, erabiltzaileei arreta malgua eta egokitu emateko.

Dunér *et al.*  
**Merely a rhetorical promise? Older users'  
opportunities for choice and control in  
Swedish individualised home care services.**  
*Ageing and Society*, 39. lib., 4. zk., 2019,  
771-794 or. Erref.: 570727.

Mendekotasuna duten adinekoak artatzeko Suediako eredu berdintasunera eta elkartasunera bideratu izan da tradizioz. Gaur egun, halere, nahi den zainketa-mota hautatu ahal izatea azpimarratzen du. Horretaz gainera, aldi berean gertatu dira zerbitzuen individualizazioaren eta zainketa-lanetako hornitzaileen arteko lehiaren bultzada, batetik, eta, bestetik, gizarte-politiken murrizketak —gure inguruko beste herrialde batzuetan ere ikusi diren joerak, guztiak ere—. Inguruabar horietan, azterlan horrek aztertzen du zer kontrol-maila duten adineko pertsonen etxean jasotzen dituzten zainketa-zerbitzuei dagokienez. Nahiz eta zerbitzuekiko gogobetetasuna den nagusi, adinekoei egindako inkestek eta elkarrizketek zalantza ipintzen dute ikuspegi sinplista bat: erabiltzaileak ondo informatuta dauden eta aukera arrazionalaren logika aplikatzen duten kontsumitzailetzat hartzen dituen. Egileek ondorioztatu dutenez, aukera asketik harago doa erabiltzaileen beharrak eta itxaropenak kontuan hartuko dituen arreta benetan individualizatuaren bermea. Ildo horretan, nabarmentzen dute garrantzitsuak direla adinekoei eta zaintzaileen arteko lotura personalak, eta sektoreko lan-baldintzak hobetzea eta zerbitzuak malgutzeko gomendatzen dute.



**Danimarkako etxeko arretarako ereduaren argi-ilunak**



**Aukeratzeko askatasuna? Nola eta zer emaitzarekin?**



**InterRAI Home Care, erreminta balioaniztuna**

Rostgaard, T.  
**Revisiting the public care model: the Danish case of free choice in home care.**  
 In: Christensen, K. eta Pilling, D. (arg.): *The Routledge Handbook of Social Care Work around the World*, Londres, Routledge, 2020, 29-44 or. Erref.: 565429.

Danimarkako etxeko zainketa-sistemaren gaineko azterketa horren arabera, sektorea merkantilizatzeko prozesuaren poderioz, okerrera egin dute lan-baldintzek, baina ez ezinbestean arretaren kalitateak. Izan ere, badirudi zerbitzuak askatasunez aukeratzeko babes mardula duela herritarren, erabiltzaileen eta udal-arduradunen artean, gastuari eusteko aukera handiagoak topatu baituzte formula horretan. Bestalde, badirudi hornitzaileen arteko lehiak ez duela nabarmen handitu erabiltzaileek zerbitzuarekin duten gogobetetasuna. Aitzitik, badirudi areagotu egin dela erakunde hornitzaileek duten gaitasuna erabiltzaileen beharrak, lehentasunak eta itxaropenak hautemateko. Zein litzateke, orduan, Danimarkako ereduaren balantzea? Egileak ez du ematen erantzun kategorikorik. Alde batetik, positibotzat jotzen du Estatuak zerbitzuen gaineko erantzukizunari eustea, eta, irizten dionez, malgutasun handiagoak ahalbidetu egiten du etxeko arretaren unibertsaltasuna indartzea eta erabiltzaileen beharretara are gehiago egokitzea. Alabaina, adierazten du, orobat, erabiltzaileen hautatzeko gaitasuna hobetzea lortu ahal izateko, okerragotu egin direla langileen lan-baldintzak, eta lortu ere horrexen kontura lortu dela.

M. FitzGerald Murphy y C. Kelly  
**Questioning "choice": A multinational metasynthesis of research on directly funded home-care programs for older people.** *Health and Social Care in the Community*, 27. lib., 3. zk., 2019, e37-e56 or. Erref.: 570729.

Etxeko arreta-programen indibidualizazioa indartzeko baliatzen den formulatuko bat erabiltzaileari funtsak ematea da, zuzenean kontrata ditzan behar dituen zaintza-zerbitzuak (*Direct Funding*). Lan horrek Australiako, Amerikako Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko adineko pertsonen zuzendutako mota horretako programei buruzko literatura zientifikoa aztertzen du. Aukera askea luze-zabal jorratzen da azterlan horietako gehienetan, eta ustezko abantailekin loturiko helburu arautzaile gisa agertzen da. Alabaina, ikerketa batzuek zalantza ipintzen dute aukeratzeko gaitasuna benetakoa ote den erabiltzaile askoren kasuan. Halaber, kritikatu egiten dute oso gutxitan heltzen zaiela zaintzaileen itxaropenei eta beharrei, eta ohartarazten dute sekula ez dela bermatzen zainketa kalitatea besterik gabe eta bere kabuz. Egileek diotenez, aukera askearen enfasiak zaildu egiten du etxeko arreta-programen berezko konplexutasuna hautematea, eta ez du aintzakotzat hartzen harreman pertsonalek arretaren kalitatean duten garrantzia. Ondorioztatzen dute, orobat, bi auziak luze-zabal jorratu izan direla teoria feminista eta zainketa etikan, eta ikuspegi neoliberalaz bestelako ikuspegiak eskaintzen dituztela etxeko arreta ulertzeko.

De Almeida Mello, J. et al.  
**Evaluations of home care interventions for frail older persons using the interRAI Home Care instrument: a systematic re-view of the literature.** *Journal of the American Medical Directors Association*, 16. lib., 2. zk., 2015, 173-219 or. Erref.: 570726.

Ziurrenik, InterRAI Home Care (IHC) erreminta izango da ohikoenetako bat etxeko arreta-zerbitzuetan. InterRAI balorazio-eskalen sortako tresna estandarizatu bat da, eta hainbat herraldetan erabiltzen da. Lerrootan aipatzen dugun artikulua tresna horren erabilera posibleak deskribatzen ditu, eta, horretarako, literaturaren berrikuspen sistematiko bat hartzen du abiapuntu. Tresna hori baliatu zuten hemezortzi esku-hartzeren gaineko azterketak agerian uzten duenez, erreminta baliagarria da hainbat helburutarako. Erabilerarik ezagunena adinekoen premiak modu integralean ebaluatzea da. Ebaluazio horren xedea da onuradunak edo onuradun izan daitezkeenak profilen arabera sailkatzea. Halaber, programa baten emaitzak ebaluatzeke ere erabili da. Azkenik, kasuen kudeaketarekin konbinatzen bada, baliagarri izan daiteke zainketa-planak inplementatzeko. Ildo horretan, kontsultatutako ikerketa batzuek azpimarratzen dute lagungarri izan daitekeela ospitaleratzeak eta ospitaleko egonaldien iraupena murrizteko. Horrek dakarren aurrezpen ekonomikoa ahaztu gabe. Ikerketaren muga nagusia da ingelesez argitaratutako artikulua zientifikoak bakarrik aztertzen dituela, eta ez dituela kontuan hartzen, ez literatura grisa, ez beste hizkuntza batzuetako lanak.

# B

## BALIABIDEAK

### 10 IGIZARTERATUZ MONOGRAFIKOAK




#### Aginte-taula integrala etxeko arreta-zerbitzuetan

Eskuliburu horren helburua da aginte-taulak etxeko laguntza-zerbitzuen esparrura eramatea, kontuan izanik erakunde batentzat funtsezkoa den edozein jardueraren plangintza, kudeaketa eta kontrola errazten dituen tresna dela. Hasteko, dokumentuak argudiatzen du erreminta hori egokia

dela etxeko laguntza-zerbitzuaren kalitatea hobetzeko. Ondoren, azaltzen du nola egiten eta ezartzen den, adibide bat erabiliz. Eskuliburuak bi aginte-koadro motaren erabilera konbinatua proposatzen du: alde batetik, konbentzionala deituko genukeena, eta, bestetik, integratua. Lehenbizikoa adierazle-sistema bat da, etxeko laguntza-zerbitzuaren kudeaketan funtsezkoa den informazioa biltzen eta laburbiltzen duena, epe laburrean erabakiak errazago hartu ahal izateko. Aginte-taula integralak, aldiz, epe ertain eta luzerako ikuspegia eskaintzen du, eta adierazleak ez dira zerbitzuaren eguneroko jarduerari buruzkoak, ezpada erakundearen helburu estrategikoen gainekoak. Ildo horretan, hau da haren erabilgarritasun nabarmenena: ebaluatu egiten du zenbateraino egokitzen den aztertutako zerbitzua sortzerakoan definitu zituzten xedeetara.

Garcia, X.

L'elaboració d'un quadre de comandament integral dels serveis d'atenció domiciliària. Guia metodològica. Bartzelona, Bartzelonako Diputazioa, 72 or., 2014. Erref.: 197533. 




#### Etxeko laguntza-zerbitzuetarako estandarrak

2020aren amaieran, Care Inspectorate erakundeak kalitate-estandarren esparru espezifiko bat argitaratu zuen Eskoziako etxeko laguntza-zerbitzuetarako eta etxebizitza babestuetarako. Esparru horrek erreferentziatzen hartzen ditu Eskoziako Gobernuak 2017an onartutako

osasun-arretaren eta arreta soziosanitarioaren estandarrak, eta haren xedea da tresna horien ebaluazio ofiziala eta, batez ere, autoebaluazioa ahalbidetzea. Azterlana zenbait auzi orokor planteatuz hasi zen. Nola babesten dugu pertsonen ongizatea? Zer lidergo-mota gauzatzen dugu? Zer ezaugarri dituzte gure langileek? Eta gure instalazioek? Zer-nola daude planifikatuta gure zerbitzuak? Galdera horiek guztiak zerbitzu bakoitzaren hobekuntza-gaitasuna zehazten zuten, eta aintzakotzat hartu zuen, orobat, COVID-19ari aurrea hartzeko eta heltzeko jarduna. Lortutako informazioan oinarrituta, hamasei irizpide definitu ziren. Ebaluazioetarako gida gisa balio du dokumentuak, eta arreta bikaina eta kalitate kaskarreko arreta bereizten laguntzeko elementuak jasotzen ditu —kualitatiboak, batik bat— irizpide horietako bakoitzerako. Era berean, estandar horiek betetzen diren ala ez zehazteko erabil daitezkeen ebaluazio-teknikak eta -prozedurak biltzen ditu, bai eta material tekniko lagungarriak ere.

Care Inspectorate

A Quality Framework for Support Services (Care at Home, Including Supported Living Models of Support). For Use in Self-evaluation, Scrutiny and Improvement Support. Dundee, Care Inspectorate, 72 or., 2020. Erref.: 570732. 



#### Nola egin etxeko laguntza-zerbitzuak kontratatzeke baldintza-agiriak

Herri-administrazioek kontratatzeke baldintza-agirietara jotzen dute beren eskumenetatik eratorritako funtzio jakin batzuk azpikontratatzeke. Baldintza-agirietan ezartzen da zein erakundek gauzatuko dituen eginkizun horiek, nola egingo dituen, eta nola antolatuko diren erakunde esleipendunaren eta zerbitzuaren administrazio titularraren arteko harremanak. Hori dela eta, gerta daitezkeen egoera guztiak ez ezik, balizko gatazkak konpontzeko mekanismoak ere aurreikusi behar dituzte. Gida hori Bartzelonako Diputazioak argitaratua da, *Benestar i Ciutadania* sail erabilgarriaren barruan, eta etxeko arreta-zerbitzuaren lizitazioa azaltzea du xede, ziurrenik udal-eskumeneko gizarte-zerbitzuen artean garrantzitsuena den heinean. Ez da urratsez urrats jarraitzeko eskuliburu, toki-administrazio profesionalak orientatzeko tresna bat baizik, eta gaiarekin loturiko alderdi tekniko, juridiko eta ekonomikoak jorratzen ditu bereziki. Liburuak kontratazio-

prozesuaren fase guztiak biltzen ditu —eredua arautzea eta definitzea, kontratazio-espeditentea, erakunde esleipenduna hautatzeko prozesua, esleipena eta formalizazioa, eta betearazpena—, eta horien adibideak eta fluxu-diagramak azaltzen dira.

Guia per elaborar plecs per a la contractació del servei d'ajuda domiciliària (SAD). Sèrie: Col·lecció Eines. Sèrie Benestar i Ciutadania, 22. zk. Bartzelona, Bartzelonako Diputazioa, 80 or., 2020. Erref.: 558820. 



### Etxeko laguntza-zerbitzuaren erregelamendu-eredua Gipuzkoako udalerrietarako

Eudel-Euskadiko Udalen Elkarteak egindako dokumentu horren helburua Gipuzkoako udalei orientazioa ematea da, etxeko laguntza-zerbitzuaren araudiak bi alderditan eguneratu ditzaten: batetik, azken urteetan izandako lege-aldaketetara egokitzeko eta, bestetik, zenbait hobekuntza txertatzeko EAEko araudian ezarritako oinarriko zerbitzuari dagokionez. Hobekuntza horiek hainbat auzi dituzte hizpide, hala nola intentsitate handiagoa, zerbitzua asteburuetara zabaltzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio-zorroan (185/2015 Dekretua) jasota ez dauden pertsonak ere estaltzea, urgentziazko sarbidea, eta ordainketa partekatua 15 eurora mugatzea. Ereduak bi baremo jasotzen ditu eranskin gisa: batetik, zerbitzuetara sartzekoa eta, bestetik, ekarpen ekonomikoa egitekoa. Lehenbizikoak eskatzaileen zerrenda antolatzeko irizpideak eta zerbitzuan sartzeko lehentasunak ezartzen ditu, gizarte-diagnostikoan oinarriturik. Bigarrenak,

berriaz, zehazten du nola egin behar den onuradunen ahalmen ekonomikoen kalkulua, eta orduko kostuaren zein zati hartu behar duten beren gain, zerbitzua ordainketa partekatua emende baitago.

Eudel

**Reglamento Municipal Regulator del Servicio de Ayuda a Domicilio / Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua Arautzen Duen Udal Arautegia.** Eudel, 29 or., 2018. Erref.: 544526.



### Etxeko eta komunitateko arreta hobetzeko jarraibideak

Gaur egungo arreta-sistemek ez diete erantzuten —ez behar bezala, ez modu jarraituan— zaintza luzea behar duten pertsonen premia aldakorrei, ez eta haien familien beharrei ere. Horretaz gainera, zaintza horiek planifikatzen direnean, askotan ez dira kontuan hartzen hartzaileen

lehentasunak; izan ere, beren etxea eta ohiko ingurunea uzteko konbentzitzen dituzte maiz, eta horrek murriztu egiten du haien bizi-kalitatea. Gida horren helburua da pertsona ardatz duen arreta integralaren eredia ezagutaraztea, bai eta dituen abantailak azaltzea ere, laguntza komunitarioari dagokionez. Ikuspegi horrek kasuen kudeaketa indibidualizatu sustatzen du, hartzaileak zainketen ardatz hartuko dituen, eta, hartara, jasotzen dituzten zerbitzuen benetako baterako ekoizle bihurtuko dira. Helburu hori praktikan ipintzeko, bederatzi urratseko metodologia bat iradokitzen da, baita beharrak ebaluatzeko, baliabideak diseinatzeko eta aplikazioa koordinatzeko teknikak eta tresnak ere. Liburuaren oinarri dira, alde batetik, ereduaren kostu-efizientzia ziurtatu duen literatura zientifiko luze-zabala, eta, bestetik, Cuidamos Contigo proiektuak lortutako emaitza onak —liburukia argitaratu duen Autonomia Pertsonalerako Pilares Fundazioak bultzatua da proiektu hori—.

Rodríguez, P. et al.

**La atención en domicilios y comunidad a personas con discapacidad y personas mayores. Guía de innovación según el Modelo AICP.** Serie: Guías de la Fundación Pilares para la Autonomía Personal, 2. zk. Madril, Fundación Pilares, 202 or., 2017. Erref.: 524947.



### Etxeko zerbitzu pertsonaletako jardunbide egokiak

Belgikako Pour la Solidarité ideia-laborategiak etxeko zerbitzu pertsonalei buruzko For Quality proiektu europarra gidatu zuen 2014 eta 2016 artean. Kategoria horrek mendekotasuna duten pertsonen (adingabeen edo mendeko pertsona helduen) zaintza eta etxeko lanak

uztartzeko dituzte. Ikerketak zerbitzu horien kalitatea ez ezik sektoreak sortzen dituen enpleguen kalitatea ere aztertzen zuen. Ondorioz, emaitzen txosten bat (erref.: 510543), hainbat gomendio (erref.: 513214) eta lerro hauetan aipatzen den jardunbide egokien katalogoa argitaratu ziren. Dokumentuak hamaika herrialdetan ezarritako hamazortzi ekimen biltzen ditu, eta zerbitzu publikoak zein pribatuak hartzen ditu barne. Fitxa bakoitzak erakunde arduradunaren datuak eta jardunbide egokiaren deskribapena ematen ditu, eta, orobat, zehazturik jasotzen ditu helburuak, aurrekontua, ebaluazioa eta transferigarritasuna. Enpleguaren kalitatea aztertzeko, aintzakotzat hartzen dira garapena zein lanbide-kualifikazioa, lan-baldintzak eta zerbitzuak ematen dituzten erakundeen babesa. Zerbitzuen kalitatearen adierazletzat hartzen dira zerbitzuen erabilgarritasuna eta irisgarritasuna, zerbitzuen arteko koordinazioa, eta erabiltzaileen inplikazioa eta babesa.

**Services à la personne: qualité des emplois et des services. Boîte à outils.** Série: Études & Dossiers. Affaires Sociales. Brusela, Pour la Solidarité. European Think & Do Tank, 43 or., 2016. Erref.: 513212.



## Autonomiarako prestazio pertsonalizatua Frantzian

Mendekotasuna artatzeko Frantziako ereduak duela ia 20 urtetik dago egituratuta, eta *Allocation Personnalisée d'Autonomie* (APA) izeneko prestazio ekonomiko baten bidez mamitzen da funtsean. Prestazio horrek modalitate bikoitza du, zaintzak ematen diren lekuaren arabera (etxean edo instituzio batean). Etxeko babesa aukeratuz gero, erabiltzaileak askatasunez kontrataturiko etxeko zerbitzuak ematen dituen erakunde bat finantzatzeko balia daiteke prestazioa. Enpresa hornitzailea hautatzerakoan, erabiltzaileek irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak dituzte aukeran, baina baita erakunde publikoen mendekoak ere, hala nola udalen esku

daudenak. Etxeko arretarako APA prestazioa profesional bat askatasunez kontratatzeko ere erabil daiteke (baita senide bat kontratatzeko ere, mendekotasuna duen pertsonaren ezkontidea edo bizikidea izan ezik), eta balia daiteke, orobat, beste zerbitzu batzuk finantzatzeko (etxebizitzaren egokitzapenak, laguntza teknikoak, telelaguntza, etxeko otordu-zerbitzuak eta abar).

Pertsonaren errentaren eta mendekotasun-mailaren arabera zehazten da prestazioaren zenbatekoa, eta banakako arreta-planaren kostuaren ehuneko baten baliokidea da (kostu horren % 10 eta % 100 artekoa, errentaren eta mendekotasun-mailaren arabera). Nolanahi ere, APA prestazioaren gehieneko zenbatekoak baditu muga jakin batzuk: hilean 674 euro, mendekotasun-maila txikiena duten pertsonen kasuan, eta 1.742 euro, mendekotasun handiena duten pertsonen kasuan. Praktikan, 551 euro da batez besteko zenbatekoa.

### ERREFERENTZIAK

Arnault, L.  
«**Montants d'APA à domicile depuis 2011: une réallocation au bénéfice des plus dépendants**». *Études et Résultats*, 1118 zk., 2019, 6 or.

Brunei, M., et al.  
«**Un senior à domicile sur cinq aidé régulièrement pour les tâches du quotidien**». *Études et Résultats*, 1103 zk., 2019, 6 or.

## Doako arreta pertsonala Eskozian

Mendekotasuna artatzeko Eskoziako ereduaren ezaugarri nagusietako bat doakotasuna da: doakoak dira bai egoitza-eremuan eskaintzen diren zainketa pertsonalak, bai etxean ematen direnak. *Free Personal Care* izeneko zerbitzuari esker, arreta-premiak dituzten 65 urtetik gorako pertsonak doan eskura ditzakete etxeko arretan eskainitako zaintza pertsonalak, edozein errenta-maila

duela ere. Alabaina, etxeko arreta ordainketa partekatuaren mende dago, eta irizpideak eta arauak aldatu egiten dira udalerrri batetik bestera. Beste horrenbeste gertatzen da eguneko arreta-zerbitzuen erabilerarekin. Edonola ere, etxeko arreta doakoa da atalase jakin batetik beherako diru-sarrerak jasotzen dituzten adinekoentzat (16.250 libera urtean, 2018an).

### ERREFERENTZIAK

Vestri, P.  
«**Evaluation of the operation and impact of free personal care**». Edinburgh, Scottish Executive, 2007, 152. or.

Independent Age.  
«**Free personal care: Insights from Scotland**», 2020, 26 or.

ERREFERENTZIAK

M. Juan

«Superislas de atención a domicilio: capacitación y desarrollo de las trabajadoras familiares del SAD de la ciudad de Barcelona», *Servicios Sociales y Política Social*, XXXVI lib., 121 zk., 2019, 27-39 or.

Moreno, S.,

«Construyendo comunidad desde lo público: el caso de las Superilles Socials». *Revista Española de Sociología*, 30. lib., 2 zk., 2021, 18. or.

## Bartzelonako superuharte sozialak

Superuharte sozialak Holandan hasitako *Bultzoorg* ereduaren aplikazio nagusietako bat dira. Eredu horretan, hiri-eremu oso txikiak artatzen dituzten taldeetan antolatzen dira zerbitzuko profesionalak. Eremu txiki horiek hiri-sareko etxadi-multzo batek definitzen ditu fisikoki.

Arduradunen arabera, «superuhartea gertutasuneko eremu bat da, auzo-girokoa, hurbileko etxeko laguntza-zerbitzua garatzeko lurralde-unitate kontzeptualizatua. Superuharte bakoitzean, talde batek 1.600 zerbitzu-ordu inguru ematen ditu hilean, eta 60-80 erabiltzailerik eskaintzen die arreta. Lurraldean kontzentratzen diren hileko etxeko laguntza-

zerbitzuko orduak dira superuharte horiek lurraldeka definitzeko funtsezko aldagaia, eta superuharte horretako zerbitzu-orden arabera dimentsionatzen da taldea, arreta pertsonaleko eta etxerako laguntzako profesionalak osatua. Superuharteak antolatzeak etxeko laguntza-zerbitzuko zuzeneko arretako langile-taldeak abian jartzea ahalbidetzen du (10 eta 15 profesional artekoak), eta haiek arduratzen dira superuhartean bizi diren erabiltzaileei arreta emateaz. Horri esker, arreta pertsonalizatua bermatzen da. Era berean, haien arreta bateragarria da lanegun luzeekin edo osoekin eta lanordu egonkorrekin, eta hainbat eratako gaitasunak garatzen dira, hala nola talde-lana, plangintza eta erabiltzaileen jarraipena. Finean, balio gehiago biltzen duen lanbidea garatzen da, eta murriztu egiten dira zainketa-lanek euren-eurenak dituzten hainbat karga, hala nola bakardadea eta zama fisiko eta emozionalak.

ERREFERENTZIAK

A. Dunér, P. Bjälkebring, eta B. Johansson «Merely a rhetorical promise? Older users' opportunities for choice and control in Swedish individualised home care services», *Ageing and Society*, 39. lib., 4. zk., 2019, 771-794 or.

J. Mathew Puthenparambil, T. Kröger, eta L. Van Aerschot «Users of home-care services in a Nordic welfare state under marketisation: the rich, the poor and the sick», *Health & Social Care in the Community*, 25. lib., 1. zk., 2017, 54-64 or.

## Suediako aukera askeko eredia

Suedian, udalerrriak arduratzen dira mendekotasuna duten adineko pertsonen zerbitzu guztiak emateaz, etxeko zerbitzuak eta egoitza-zerbitzuak barne harturik. Ez dago herrialde osorako baliatzen den eskala edo baremo bateraturik, eta udalerririk bakoitzak bere irizpideak erabiltzen ditu mendekotasunaren arretarako zerbitzuak zein pertsonak jaso ditzakeen eta pertsona bakoitzari zer zerbitzu-mota (egoitzakoak, etxekoak

eta abar) dagozkion zehazteko. Halaber, udalerrriak zehazten ditu eman beharreko ordu-kopurua eta egin beharreko eginkizunak, etxeko arretaren aldeko hautua eginez gero.

Hori horrela, etxeko laguntza aukeratzen duten erabiltzaileek, ordu-kopurua eta eskaini beharreko zereginak ezarri ondoren, aukera dute zerbitzu horietarako hornitzaile bat hautatzeko, betiere onarturik dauden eta toki-agintaritzarekin kontratua formalizatuta daukaten hornitzaileen artean. Erakunde hornitzaile horiek titulartasun publikokoak edo pribatukoak izan daitezke.



2022 | IRAILA

# GZ

GIZARTERATUZ  
monografikoak

#### Edukiak

SIIS GIZARTE INFORMAZIO ETA  
IKERKETA ZERBITZUA

#### Argitalpena

BEHATUZ. GIZARTE ZERBITZUEN  
EUSKAL BEHATOKIA

#### Diseinua, ilustrazioa eta maketa

Concetta Probanza

#### Lizentzia



Dokumentu honek Creative Commons  
Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioarteko Lizentzia du



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES